



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

EAJ-PNV, Bildu eta PSE-EE taldeen arteko akordioa batzordean, Bizkaiko Udalen egonkortasunari eta finantzaketari buruzko Foru Arauen erespenak onartzeko

Bilbon, 2013ko maiatzaren 31n.

Gaur Bilbon alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzorde Institutuzionalak, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV), Bildu eta Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeen aldeko eretxiagaz, Aldundiak aurkeztu dituan eta Bizkaiko egonkortasuna eta finantzaketa bermatzeko neurriak jasoten dituen Foru Arau proiektu erespen biak onartu ditu. Bi proiektuak, Toki Erakundeetako Aurrekontuen Egonkortasunari eta Iraunkortasunari buruzko Foru Arau Proiektua eta, hornitzaileakaz dituen zor jakin batzuk ordaindu ahal izateko, udalen eta horreen esku dagozan erakundeen zorpetze mugak urte honetarako aldatzen dituan Foru Arau Proiektua dira. Holan, foru arau biek aurrera jarraitzen dabe Bizkaiko Ganberan egin beharreko izapidetzeagaz. Batzarretako izapidetzea, aurrerago egingo dan osoko bileran onartzen danean amaituko da.

Batzarretako taldeek 19 zuzenketa-eske aurkeztu ebezan aurrekontuen egonkortasunerako arau proiektuaren aurrean. Bildu eta PSE-EE taldeek zuzenketa-eske horreetako gehienak baztertu egin ditue, EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa-eske transakzionalak onartu eta gero. Horretako batean esaten da egoera onean dagozan toki administrazioek aurreko ekitalditik aurreztutakoa edo ekitaldi honetako diru-sarrera barriak erabili ahal izango dituela, beharrezkotzat hartzen diran gastuetarako eta inbertsinoetarako, beti be, araudi barriak ezarten dituan baldintzak betez. PP taldeak aurkeztu dituan zortzi zuzenketa-eskeak osoko bilkurarako gorde dira, Batzorde Institutuzionalak atzera bota eta gero.

Bizkaiko udalerrien zorpetze mugak aldatzeko Arauaren proiektuari jagokonez, Bildu taldea izan da Foru Aldundiak aurkeztutako testuaren aurrean zuzenketak aurkeztu dituan bakarra. Talde abertzalearen eretxiz, “derrigorrezkoa” da diruzaintzako eragiketak Arau horretan sartzea, eragiketa horreek “epe luzean barriro finantzatu ahal izan daitezak, Euskadiko udal askok eskatu daben moduan”. EH Bilduko bozeroaleak adierazo dau “ez dala zuzena fakturak kaxoian gorde dituen udalak Arauaz baliau ahal izatea eta zor horreek ordaintzeko diruzaintzako eragiketa eskatu dabenak hori egin ezin izatea”.

Beste alde batetik, Batzorde Institutuzionalak, Bildu taldearen Arauzko Proposamen baten hasierako erespene onartu dau. Proposamen horretan, Batzar Nagusietan aurkezten diran Foru Arauek bete behar dituen eskakizunak ezarten dituan 3/1987 Foru Arauaren 55. artikulua aldatzea eskatzen da. Bilduk, arauak onartzeko proiektuek, genero eraginari buruzko ebaluazino txostena jasotzea eskatzen dau. Proposamenak Bilduren 11



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ordezkarien, Socialistas Vascos taldearen eta Euzko Abertzaleak taldearen aldeko botoa jaso dau, eta PP-ko bi batzarkideak abstenidu egin dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

PNV, Bildu y PSE-EE aprueban los dictámenes de las Normas Forales de sostenibilidad y financiación de los Ayuntamientos de Bizkaia

Bilbao, a 31 de mayo de 2013.

La Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida hoy en Bilbao, ha aprobado, con el apoyo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos (PNV), Bildu y Socialistas Vascos (PSE-EE), los dos dictámenes de Proyecto de Norma Foral presentados por la Diputación que incorporan un nuevo paquete de medidas para garantizar la sostenibilidad y financiación de los ayuntamientos vizcaínos. Se trata de la Norma Foral de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad de las Entidades Locales, y la Norma Foral por la que se modifican para este año las limitaciones de endeudamiento de los ayuntamientos y sus entidades dependientes con el fin de poder abonar determinadas deudas con proveedores. De esta forma, ambas normas forales continúan su tramitación en la Cámara vizcaína. El trámite parlamentario concluirá con su aprobación en un próximo pleno.

Los grupos junteros habían presentado un total de 19 enmiendas al proyecto normativo de estabilidad presupuestaria. Bildu y PSE-EE han retirado la mayoría de sus enmiendas al aceptar las transaccionales introducidas por el PNV. En una de ellas, se recoge que las administraciones locales que estén en una situación saneada, puedan emplear los ahorros del ejercicio anterior o nuevos ingresos del presente, a aquellos gastos e inversiones que consideren necesarios, siempre bajo unos condicionantes que establece la nueva normativa. Por su parte, las ocho enmiendas que había presentado el PP han sido reservadas para el pleno, después de que hayan sido rechazadas por la comisión.

En cuanto al proyecto de Norma para cambiar las limitaciones de endeudamiento de los municipios vizcaínos, sólo Bildu ha presentado correcciones al texto presentado por la Diputación Foral. En opinión del grupo abertzale, resultaba “imprescindible” incluir las operaciones de tesorería en la citada norma para que estas operaciones “se puedan refinanciar a largo plazo, tal y como han exigido muchos ayuntamientos vascos”. El portavoz de EH Bildu ha señalado que “no era justo que los que han guardado facturas en el cajón se puedan acoger a la Norma y los que han solicitado una operación de tesorería para pagar esas deudas no lo puedan hacer”.

Por otra parte, la Comisión Institucional ha aprobado también el dictamen previo de una Proposición de Norma de Bildu para cambiar el artículo 55 de la Norma Foral 3/1987 donde se establecen los requisitos que han de cumplir las Normas Forales presentadas en las Juntas Generales. En la misma, Bildu demanda que los proyectos normativos incluyan un informe de evaluación de impacto de género, lo cual ha sido aprobado con



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

los votos a favor de los 11 representantes de Bildu, del grupo Socialistas Vascos y del grupo Nacionalistas Vascos, y la abstención de los dos apoderados del PP.